


Euskal AEko eraikuntzako kostuek bere horretan iraun zuten 2007ko uztailean

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko uztailetik 2007ko uztailera) eraikuntzaren kostuak %5,1 igo dira.

2007ko uztailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea ez zen aldatu (%0,0) aurreko hilaren aldean, eta uztaileko urte arteko tasa %5,1era iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Uztailean Eraikuntzako azpisektoreak egonkor iraun zuen (%0,0) eta Obra Zibilekoa %0,1 hazi zen; urte arteko tasak %5,3 eta %4,4 izan ziren, hurrenez hurren.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera uztailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko uztailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); ezta ere lehengaien kostuak (%0,0).

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,0 igo zen Eraikuntzako lehengaien kostua eta %0,1 Obra Zibilekoa. Azken honen pisu erlatiboa txikiagoa da Eraikuntzarena baino. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek antzeko joerak izan dituzte baina indar ezberdinez: eraikuntzako lehengaien kostuak %6,1, hazi dira, eta obra zibilekoak, %4,9.

Uztailean, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *energia elektrikoa* (%2,7), *asfalto-produktuak* (%1,0), *petroliotik eratorritakoak* (%0,8), eta *ateratze agregakinak* (%0,6), besteren artean. Aitzitik, beste lehengai batzuen prezioak jaitsi egin dira, hala nola *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-0,5), *burdina eta altzairua* (%-0,4), *leherkariak eta gasak* (%-0,4) eta *metalezko hoditeria* (%-0,3) lehengaienak, besteak beste.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: beira (%24,8), burdina eta altzairua (%17,0), metalezko hoditeria (%14,1) eta karea, igeltsua eta eskaiola (%7,9). Bestalde, urte batetik bestera (2006ko uztailetik 2007ko uztailera) honako hauen lehengaien prezioak murriztu dira: asfaltozko produktuak (%-9,2), petrolioaren eratorriak (%-4,4), egiturak eta galdaragintza (%-1,2).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko uztaila.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	131,6	0,0	5,1	3,9
ERAIKINAK	131,7	0,0	5,3	3,9
OBRA ZIBILA	131,2	0,1	4,4	3,9
LEHENGAIEN KOSTUA	129,1	0,0	5,9	4,1
ERAIKINAK	129,5	0,0	6,1	4,1
OBRA ZIBILA	127,7	0,1	4,9	4,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp